

AKORDIOA, UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEN NEGOZIAZIO MAHAIARENA, DOKTOREGO AURREKO KONTRATUA DUTEN ALDI BATERAKO IKERTZAILEEN SOLDATA KALKULATZEKO ERABILTZEN DEN ERREFERENTEA HOBETZEARI BURUZKOA

I.- UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 15eko bileran berretsi zuen UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen Negoziazio Mahaiaren 2021eko abenduaren 9ko akordioa, doktore aurreko kontratua eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemara sartzeko kontratua duten aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa. Akordio hori izenpetu zuten Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eta Ikerketaren arloko errektoreordeak, UPV/EHUren izenean, eta UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen ordezkari legalek.

II.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legeko 21. artikulua babesean doktorego aurreko kontratua duten aldi baterako ikertzaileen ordainsariak direla eta, akordioak honako hau dio laugarren ataleko hirugarren puntuan: *Espainiako edo Europako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren finantzaketa autonomikoen eragile publikoek dagokion deialdian, ebazpenean edo antzeko bitartekoan, bai eta UPV/EHUren berezko deialdietan ere, kontratu modalitate horretan ikertzaileen kontratazioa finantzatzeko finkatuko duten zenbatekoa hartuko da kontuan. Gutxieneko ordainsari erreferente gisa estatuko administrazio orokorraren lan kontratudun langileen hitzarmen bakarrean jasotako ordainsari taularen lan kontratudun langileen 1. talderako finkatutako soldata, martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuaren 7. artikulua 1. atalak kontratuaren iraupen urte bakoitzerako ezarritako portzentajeetan. Gutxieneko hori urtero eguneratuko da, eta ondorioak izango ditu soldatan, deialdiaren data zein den albo batera utzita."*

III.- Bestalde, akordioko lehenengo xedapen gehigarrian jasota dago erabakiko laugarren ataleko 3. puntuan aurreikusitako ordainsari erreferentea aldatzeko aukera. Xedapen horrek honako hau dio: (...) *2023ko urtarrilaren 1etik aurrera irakasle atxikiari dagokion ordainsariaren % 95 izatera pasatuko da, betiere horren aplikaziorako aurrekontu kreditu nahikoa eta egokia bada eta unibertsitate gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila ados badago. Era berean, doktore aurreko kontratuen ordainsariei dagokienez, administrazioak Negoziazio Mahaia berriro deitzeko konpromisoa hartzen du, akordio hau sinatu eta gutxienez bi hilabete eta gehienez bi urte igaro ondoren, eta izan izango du ekarri, edonola ere, kontratu horietan jasotzen den soldata jaistea.*

IV.- Testuinguru horretan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legeko 21. artikulua babesean doktorego aurreko kontratua duten langileen ordainsari erreferentea negoziatzeko IRien Negoziazio Mahaiak 2023ko urtarrilaren 27an eta otsailaren 8an egindako bileretan, sindikatuen ordezkariak eta unibertsitateko administrazioaren ordezkariak akordio honetara heldu dira:

AKORDIOA

LEHENENGOA.- Doktorego aurreko kontratua duten ikertzaileen ordainsari erreferentea hobetzea

Aldatzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legeko 21. artikulua babesean doktorego aurreko kontratua duten ikertzaileen ordainsari erreferentea, zeina aurreikusita dagoen doktore aurreko kontratua eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemara sartzeko kontratua duten aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeko 2021eko abenduak akordioko laugarren ataleko hirugarren puntuan eta lehenengo xedapen gehigarrian.

Erreferente hori izango da irakasle atxikiei dagokien ordainsariaren % 96,5, atzerako eraginez 2023 urtarrilaren 1etik, horretarako aurrekontu kreditu nahikoa eta egokia badago.

BIGARRENA.- Ordainsari erreferentea berrikustea

Aipatutako erreferentea pasatuko da izatera, horretarako aurrekontu krediturik egonez gero, irakasle atxikiek 2024. urtean zehar jasoko duten ordainsariaren % 100. Dena den, negoziatu egin beharko da aldaketa horrek noiztik aurrera izango dituen eraginak, nahiz eta data ezingo den izan inola ere ez 2024ko uztailaren 1a baino beranduagokoa.

Aipatutako erreferentea 2024ko uztailaren 1etik aurrera pasatuko da izatera, horretarako aurrekontu krediturik egonez gero, irakasle atxikiek jasotzen duten ordainsariaren % 100. Data hori aurreratutako ahal izango da baldin eta sinatzaileen arteko akordio berri bat badago.

Adostasuna adierazteko, dokumentu hau sinatu dute Leioan, 2023ko apirilaren 5ean.

CCOO

ELA

LAB

UGT

STEILAS

UPV/EHU